



“Txikia”

40 urte
Eustakioren
itzala

Zaharrak berri:
Txikia, itzal luzeko gudaria
Herri eskola: artea
sentitu, gozatu eta egin
Lurdes Aranburu:
12 urte herritarren
zerbitzura



Heritik herriarentzat. Itsasondo 2.0k 20. alea

Udaberria lozorrotik esnatuaz batera, neguaren zantzuak erretiratzear daudela loratu zaigu Itsasondoko herri-aldizkariaren ale berri hau. Eskuartean daukagun alearen zenbakiak orain artean elkarrekin eginko ibilbidea adierazten digu. Bost urte pasatxo dira aldizkariaren lehen hazia erein genuela eta denboran aurrera egin ahala kokortuz, maituz eta helduz joan den egitasmoa izan da. Herrirako eta herriarentzat informazio eta komunikazio lanabes bat eraikitzeke apustuari heldu genion herritar batzuk eta ilusioz, grinez ekin auzolanari. Alez ale gero eta itsasondotar gehiagoren partaidetza eta ekarpenak jasoz joan da eta eginahal bateratu honi esker egin dugu 20. alerainoko bidea. Esker onak baino ez ditugu parte hartzearen bidez zuen hauspoa eman dioten herritar orori eta era berean, Itsasondo 2.0 postontzira noiz ailegatuko zain zaudeten irakurle guztiei. Murrizketek gerrikoa estutu arazi digute baina ospatzeko aldartea ez digu hondatu!

Ale honetan aurkituko duzuenaren aurrerapen txiki bat baino ez den arren, zaharrak berri atalean Txikiaren erailketaren 40. urteurrena ekarri dugu gogora; elkarriketen atarian, berriz, dendako Lurdes Aranbururekin izaniko solasaldia aurkituko du irakurleak. Azken hilabeteotan herrian jazotakoak ere bildu nahi izan ditugu orrialde hauen arera. Honela, eskolaren atariko ospakizunetan inauteriak eta zuhaitz eguna berri nahi izan ditugu, baita guraso elkartearen eskutik ijito eguna bera ere. Aranzadi elkarteak landa eremuari bultzada eman asmoz udalak abian jarri dituen ekimenak aipatzen ditu eta horien artean azken urte hauetan landatu dituen zuhaitzen inguruan hitz egingo digu. Itsasondo inguruak ezagutzeko parada berri bat ere badakarkigu zuen arera; Mutiloatik Ormaiztegiara ibilbide berdean barna goatzeko gonbitea dakarkigu. Kontu hauek eta gehiago jakin nahi badituzue... astindu aldizkaria eta gozatu Itsasondo 2.0-rekin!

Hurrengora arte eta bitartean kontent bizi! ■



DOINUA: Iparragirre abila dela

Aldizkari honek plazaratu du bere hogeigarren atala, Lurdes dendan borobilduaz elkarriketa zahala, Algortara begira abiatu ez den zaurina Eustakioren itzala, berrogei urte joan dira baina ez nahi genuen bezala.

Lur sail ugari garbitu dira maldaz maldaz, mugaz muga lau mila zuhaitz landatu eta argituz bere itsura eskolako lanetan zuhaitz eguna bertan ta gurasoen ardura ijito eguna antolatzeke (antola nabirik) tokatzen zaigun modura.

Modu askotan ageri zaigu indarkerizko kakoa onaingo bontan aipagai degu gurasoen aurkakoa, lasaitzeko xedean ibilbide berdean zabalduz gure kolkua Mutiloatik Ormaiztegiara aukera primerakoa.

Sarrerako bertsoak

Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Haurreskola:** Zure haurrarekin jolastuz... 0 urtetik 1era
- 06-08. **Eskola:** Artea sentitu, gozatu eta egin
- 09. **Errenta aitorpena**
- 10-13. **Elkarriketa:** Lurdes Aranburu
- 14. **Kale inkesta:** Itsasondo 2.0 aldizkariak 20. alea
- 15-18. **Zaharrak berri:** Txikia, itzal luzeko gudaria
- 19. **Ongizatea:** Gurasoen aurkako indarkeria
- 20-21. **Orreaga 778-824**
- 22-23. **Ibilbidea:** Mutiloa-Mutiloa
- 24. **Aranzadi:** 3.646 zuhaitz
- 25. **Informatika:** Ordenagailu topaketak
- 26. **Gaztedia:** LOMCE
- 27. **Gazteria:** Aste Santuko oporrak eta Ludoteka
- 28-29. **Hemeroteka**
- 30. **Lorezaintza eta sukaldaritzak**
- 31. **Liburuaren txokoa**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

2013ko Udal aurrekontuak

Mozioak

Udalak azken hilabeteetan egindako batzarretan udaletxean onartzea planteatutako mozio hauek aztertu eta onartu dira:

- Otsailaren 5ean egindako batzarrean euskal presoei kondena luzatzeko Auzitegi Gorenak ezarritako Parot izenez ezagutzen den doktrinaren kontrako mozioa onartu da.
- Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko egunaren mozioa onartu da.

Diru-laguntzak

Jasotakoak

Evek udaletxean egindako ingurutzailaren (envolvente) obrarako 14.850 euroko laguntza eman du.

	Inbertsioa	Dirulaguntza	Ekarpena
Parte hartze prozesua	13.150,28 €	10.000,00 €	3.150,28 €
Artxiboa informatizatzea	12.000,00 €	7.500,00 €	4.500,00 €
Ingurune naturala	41.840,00 €	31.000,00 €	10.840,00 €

Beste zenbait erabaki

Hilerian 1994.urtean eraikitako hilobi prefabrikatuak dagoeneko ia-ia okupaturik daudenez, hilerriko goiko lerroan dauden hilobiak (1994-1998 urteetakoak) hustutzea erabaki da. Lan hauek martxoaren 20rako amaiturik egotea aurreikusten da.



Udal aurrekontuak

Dirusarrerak

1 Kapituluak: Zergak	136.000,00 €
2 Kapituluak: Obra baimenak	300,00 €
3 Kapituluak: Tasak	86.281,92 €
4 Kapituluak: Dirulaguntzak	456.081,08 €
5 Kapituluak: Errentak-interesak	13.100,00 €
6 Kapituluak: Orubeen salmenta	- €
7 Kapituluak: Dirulaguntza proiektu handiak	178.237,00 €
8 Kapituluak: Kreditu gehigarriak finantziakzioa	- €
9 Kapituluak: Epe luzera jasotako maileguak	- €

870.000,00 €

Gastuak

1 Kapituluak: Pertsonala	199.400,00 €
2 Kapituluak: Gastu amankomunak*	260.265,28 €
3 Kapituluak: Interesak mailegu	4.540,00 €
4 Kapituluak: Dirulaguntzak	103.170,65 €
6 Kapituluak: Inbertsio gastuak	259.658,07 €
7 Kapituluak: Transf. landa gipuzkoa	100,00 €
9 Kapituluak: Epe luzerako maileguek amortizazioa	42.866,00 €

870.000,00 €

*argiteria, ura, kalefakzio, telef.

Urteroko dirusarrera eta gastuetaz aparte:

OBRA: 1go. solairuko obrari ekingo diogu urte honetan, kulturegune deritzonari. Nahiz eta aurreragorako utzi nahi genuen, obra nagusiaren mailegua txikitutakoan, aurtien Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Aldunditik eskeini dizkiguten dirulaguntzak, epe oso luzean, ez dutenez parekorik izango (egoera ekonomikoa dela eta), aurtien ekingo diogu!!

Eusko Jaurlaritzatik obra guztiaren zenbatekoaren (BEZ-a gabe) %66a estaliko luke. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gelditzen denaren %60aren kargu egingo dela hitzez agindu digu. Udalak obra guztiaren zenbatekoaren (BEZ-a barne) %18aren bakarrik kargu egin beharko lukeelarik. Oraindik esleipena egin gabe dagoenez, eta proiektua egokitzin ari garenez ezin dugu zehaztu behin-betiko kostua. Aurrekontuetan 205.818€-ko kostua isladatu dugu.


Udal Foru Fondoa

Bestalde jakin aurtien G.F.A.-ren Udal Foru Fondotik (dirusarrera iturri nagusia) jasoko duguna 391.581€ direla. Aurreko urtean 395.436€ jaso genituen, eta 15.651€ itzuli beharko dituguGFAtik egindako aurrikuspenak baikorregiak izan zirelako.■

*Milesker berriz ere, TTiklik.com-eko lagunei!
Haur ttikien heziketan hainbesteko informazioa
elkarbanatzeagatik!*

Zure haurrarekin jolastuz... 0 urtetik 1 era

Haurraren bizitzako aurreneko urtean, garuna inoiz baino azkarrago hazten da, eta hainbat eta hainbat neurona-konexio egiten dira; hori dela eta, oso garrantzitsua da berarekin jolastea, batez ere familian, jolasa ikasteko eta haurren garapenerako daukagun tresna boteretsuena da eta. Daukan garrantzia emanez gero, bizitza guztira heda daiteke jolasaren garrantzia. Beti ere jolasa, aztertzea, esperimentatzea, aurkitzea... bezala hartzen bada.



Haurrarekin jolasteko garaian, bakoitzak bere senari jarraitzea da onena, kanpotik datozkigun aholkuak ahaztuz (familia, lagunak...). Geure buruarengan segurtasuna baldin badaukagu, haurrari segurtasun hori transmitituko diogu. Guraso bati, bere haurrarekin jolastea naturalki ateratzen zaion gauza bat da, ez dute behar inolako ikastarorik horretarako, baina haurrarekiko lotura hori osasuntsua eta haurraren garapena harmoniatsua izan dadin, oso garrantzitsua da faktore batzuk kontuan izatea:

- Ingurukotik deskonektatzea ohitura bezala hartzen saiatu, haurrari benetako jolas denborak eskaini eta familian gozatu ahal izateko. Horrela, haurrak momenturo behar duen bezala artatu dezakegu.
- Bere adinari dagokion leku bat eskaini, esperientzietan aberatsa. Ez da beharrezkoa kolore eta argi asko duten jostailuak izatea; inguruan ditugun tresnak esperimentazio iturri onak dira haurrarentzat.
- Lurra erabili esploratze-toki bezala. Beti umearen parean jarri, gure begiak bere begien parean egon daitezela, komunikazioa erraztuz. Lurrean etzanda egonda aukera mordoa daude aurkikuntza postural, mugimenduzkoak, ikus-eremuzkoak... egiteko.

- Mimoak, musuak, besarkadak, masajeak... inoiz ez daude soberan, umeak ez dira beraietara ohitzen, behar-beharrezkoak dituzte oinarri emozional on batzuk lortzeko. Nahiz eta 7-8 urte betetzean handiak direla iruditu, hauek denak beharrezkoak ditugu bizitza osoan zehar.
- Oso garrantzitsua da haurraren jolasean lagun izatea, bere aurkikuntzetan laguntzea, baina bere kabuz aurkitu ditzan utziz. Dena eginda ematen badiogu, gauzak errazten badizkiogu, ez da izango bera bakarrik egiteko gai.
- Haur bakoitza desberdina dela kontuan izan, eta bakoitzak errespetatu beharreko erritmoa duela.

Adin bakoitzeko eboluzio-ezaugarriak ezagutzea garrantzitsua da, haurraren garapena modu naturalean izatea erraztuz. Ez dira oraindik garatu ez dituen mugimendu edo jarrerak derrigortu behar. Berriz ere, azpimarratzekoa da haur bakoitzak bere erritmoa eta bere garapena dauzkala.

Jaio eta aurreneko asteetan, zentzumenak erabiliz sentitzen dituen sentimenduen bidez esperimentatzen du. Orain eta hemen intentsitate handiz bizi du eta sentimendu batetik bestera oso erraz pasa daiteke. Bista oraindik garatze prozesuan dauka, baina koloreak bereiztu ditzake, formak eta intentsitateak. Distantzia motzean ikusten duela kontuan izan behar da (amaren bularretik aurpegira arteko distantzia da hau). Gainera, oraindik ertzetan bakarrik zentratuko da, ez barrukoan.

8 eta 12 aste artean, interakzio soziala hasiko du, nahita egindako irribarrea, zizakadurak (balbuceo), begiradak... Orain eta hemen intentsuki bizi du orain ere, baina oso garrantzitsua da norekin. Gainera, orain hobeto ikusten du eta pertsonen aurpegiak oso erakargarri egiten zaizkio; batez ere, begirada bilatzen du.

Asteak pasatzen doaz eta iraulketak, kulunkak, lau hankatan ibiltzea, bakarrik esertzea... hasten dira. Esplorazioak gero eta intentsioagoak egiten dira eta ikuspuntu desberdinetik, gainera.

8 eta 9 hilabeteen artean, beraien ekintzek ondorioak dituztela konturatzen hasten dira, hau da, begiak itxiz gero, ez dut ikusten, hankaz aulkia jotzen badut min hartuko dut... Bera eta ama pertsona desberdinak direla konturatzen hasten da, sentitzea eta jarduna desberdinak dituztela eta banaketaren larritasuna bizitzen hasten da.

12 hilabete ingururekin asmoak, nahiak, sentimenduak, arreta, pentsamenduak eta oroitzeak garatzen ditu. Orain iragana, oraina eta berehalako etorkizuna bizi ditu.

Testu hau haurraren garapen ebolutiboko hondar ale bat bakarrik izan da. Oso garrantzitsua da gurasoek beraien senari kasu egitea, beraien artean koherentzia bat mantenduz, eta familian haurrarekin batera jolasteari denbora osoa eskaintzea, haurrak erakusten dien bideari jarraituz. ■

ARTEA SENTITU, GOZATU ETA EGIN

Gaur egun bizi dugun munduan, ARTEA beharrezkoa dela uste dugu, hainbat esparrutan lagundu gaitzakeelako, eta horrez gain, geure burua ezagutzeko balio duelako. Hortaz, haurrekin artea ongi erabiltzea eta eurekin arteaz gozatzea beharrezkoa dela uste dugu. Gauzak ikustez gain, ukitu ere egin daitezke, baita sentitu eta gozatu ere aldi berean. Ho-

rrekin lortzen dena da haurrak artean murgiltzea eta ikastea, motibatzea, ongi pasatzea, bere sentitzea, eta ondorioz, une batez bada ere artista bihurtzea.

Laburbilduz, artelanak ezin dira egin sentitu eta gozatu gabe. Horren adibide, haurrak nola murgildu diren tailerretan, benetako artista direlarik.

Artea sentitu, gozatu eta egin



Tailerretan artelan handiak egiten ari gara eta erakusgai jarri nahi ditugu. Artista handiak ezagutu eta artista bihurtu gara.


Harrituta gaude egiten ari garen lanekin eta lortzen ditugun ekoizpenekin. Eta garrantzitsuenak, zein ondo pasatzen dugun asko ikasiaz.



Ba al zenekiten aurpegi baten simetria eginez gure aurpegiak nolakoak diren jabetzen garela?




Ba al zenekiten gure aurpegi argazkiei koloreak jarritz erabat itxuraldatzen zaigula? Hau Andy Warholengandik ikasi dugu!



Ezagutzen al duzue Picassoren
“La niña con barco”?



Eta esperimentatuz lan izugarriak
egin daitezkeela? Burbuilak eginez,
suarekin argizariak urtuz, testura
ezberdinak erabiliz...



Aurtun 5.000 baietz

Goierriko udalak errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina jarri dugu martxan, bigarren urtez jarraian. Kanpaina horretan, esku-orriak banatuko dira etxetz etxe eta herriko toki jakin batzuetan ere utziko dira, edonoren eskura, aitortpena euskaraz egin nahi bada zer egin behar den jakiteko.

Horrekina batera, errentaren aitortpena egiten duten aholkularitza zerbitzuekin eta Beasaingo Hazienda bulegoko arduradunarekin harremanetan jarri gara, eta kanpainarekin bat egiteko eskatu diegu.

Kanpainaren helburua

Helburua da errentaren aitortpenaren kanpaina, iaz baino herriar gehiagok egitea deklarazioa euskaraz. Iazko datuak kontuan hartuta, Itsasondan 91 pertsonak egin zuten deklarazioa euskaraz, aurreko urtean baino % 7 gehiagok. Goierriin ere hazi egin zen aitortpena euskaraz egin zutenen kopurua: % 15,30etik % 17,80ra. Guztira 4.186 pertsonak egin zuten deklarazioa euskaraz Goierriin, eta aurtengo kanpainaren helburua da gutxienez 5.000ra iristea.

Deklarazioa euskaraz

2012 urteari dagokion errenta aitortpena egiteko kanpaina apirilaren 16an hasi eta ekainaren 25ean amaituko da, baina apirilaren 10etik aurrera etxera bidalitako autoliki-dazio proposamenak berretsi ahal izango dira.

Aitortpena egiteko modalitate guztietan ez dago inolako arazorik euskaraz egiteko, eta euskaraz egin nahi duzula esan besterik ez duzu egin behar. Nola?

Autoliki-dazio proposamena

Proposamena eta gutuna ele biz jasoko dituzu, eta, onartzeko garaian, euskaraz nahi duzula esatea baino ez duzu. Aurtengo behin betiko deklarazioa euskaraz bidaliko dituzte, eta aurrerantzean ere hala egingo dute.

Mekanizaturia

Haziendako bulegoan hitzordua eskatzerakoan, esan Haziendarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula. Horrez gain, aitortpena egitera joatean, eskatu agiria euskaraz ematea nahi duzula.

Telematikoa

Aholkularitza zerbitzura joatean, espresuki adierazi aitortpena euskaraz egin nahi duzula. Internet bidez errenta programa jaitziz gero, berriz, euskarazkoa aukeratu.

Inprimakia

Estankoean inprimakiak ele bitan daudenez, zuk erabaki ahal izango duzu zein hizkuntza erabili. Interneten ere lortu ahal izango duzu inprimakia, eta euskaraz betetzeko aukera izango duzu.

Euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, zeinek egingo du ba? ■



Lurdes Aranburu

Makina bat urtean, gure zerbitzura aritu den herritarra

Elkarrizketa honetan, denok hain gertukoa dugun Lurdesengana jo dugu, eta ezagutzen ez genituen hainbat pasarte eta gertakizun kontatu dizkigu, Ibarre tabernan hasi eta gaur egun daukan dendara arte.

Zein izan da zure ibilbidea?

Nire ikasketak Itsasondoko Herri Eskolan hasi nituen eta ondoren Ordiziako Oñanguren Institutuan COU arte (oraingo 2. Batxilergoa) ikasi nuen. Baina, ondorengorako ez neukan garbi zer egin edo zer ikasi, eta COU egin eta utzi egin nuen.

Eta ondoren zer egin zenuen?

Ondoren lantxo batzuk egiten hasi nintzen, umeak zaintzen esate baterako. Baina, niri asko gustatzen zaizkit eskulanak, eta Donostiako akademia batean "Corte y Confección" ikasten hasi nintzen. Goizetan Ordiziako ume bat zaintzen nuen eta arratsaldeetan Donostiara joaten nintzen ikastera, lau-bost ordu (ez egunero).

Arropa mundutik bizitzeko esperantza zeneukan?

Hasieran pentsatzen nuen nire bizimodu atera nezakeela lanbide honetatik, eta Donostiako arropa denda batean hasi nintzen lanean, baina han arropa konponketak egiten ziren bakarrik eta ez zen ezer diseinatzen. Hemen denbora pixkat egin eta utzi egin nuen.

Ibarre tabernan lanean aritutakoa zara, ezta?

"Corte y Confección" ikasketak abuztu batean bukatu nituen, juxtu Itsasondoko festekin bat eginez eta Joxe Luis nebari Ibarreko Joxepak komentatu zion, norbait behar zutela tabernan lan egiteko, festa haietarako. Hasieran ez zitzaidan gustatu ideia, tabernan lan egitea jendearen aurrean, ez nuen gustuko. Baina, beste aldetik, ez nuen lanik eta zerbaiti heldu beharra neukanez, baiezkkoa esan nien (pentsatuz festetako kontua izango zela bakarrik).

Gogoratzen duzu hasi zinen eguna?

Bai, oso ondo. Pixka bat eskua hartzeko, festen aurretik hasi nintzen, 1995eko abuztuaren. Lehenengo egun hura ez zait ahaztuko. Atzeko atetik sartu ordez, tabernako sarreratik sartu nintzen, eta bertan zegoen txikiteko jende guztia begira gelditu zitzaidan, barra barrura sartu nintzenean.

Eta festen ondoren?

Festak bukatu eta etxera joan nintzen. Baina, egindako lanarekin gustura geratu zirenez, jarraitzeko aukera eman zidaten; eta beste ezer ez neukanez, segitzea erabaki nuen. Lau urte ibili nintzen, 1999ra arte, Ibarre itxi zen arte.

Ibarrek ematen zuen zerbitzua ona zen?

Ematen zuen zerbitzua harrigarria zen, edozein gauza topa zenezakeen bertan, horregatik esaten zitzaion "El Corte Inglés"-a. Gainera, Joxepa hemendik edo handik saiatuko zen lortzen, ez baldin ba zeukan ere. Ibarre Itsasondoko puntu garrantzitsua zen, bertan mundu guztia elkartzen zen eta beti zeukan aktibitate handia, goizean goizetik gaueko ordu txikitara. Mus partida ugari egiten ziren, eta sagardotegi garaian giro aparta egoten zen.

Gustura egon zinen?

Bai, oso gustura egon nintzen, zortzi ordu lan egiten nituen eta larunbatak libre. Oso ondo tratatu ninduten Ibarren, etxekoa bezala.

Ibarre utzi ondoren?


Segituan deika hasi zitzaizkidan lane-rako, Ordiziako Pottokatik esaterako, baina ez nuen nahi. Zabale belar-dendatik ere deitu zidaten, baina ordurako herrian bazebilen denda bat ireki behar zutelako hotsa eta havei ere ezetz esan nien, eta baita beste lanen bati ere.

Beraz, denda berriaren proiektua berehala atera zen?

Oroitzen dut, Ibarre itxi eta urtebetera ireki nuela denda. Ibarrenen itxierak bat-batean harrapatu zituen herritarrek, eta herria ere bai. Urtebete horretan herria hutsik geratu zen, zerbaiten beharreakin.

Nola izan zen denda berriaren sorrera?

Udaletxean deialdia atera zen, herrian denda bat irekitzeko proiektuarena. Bost bat lagun aurkeztu ginen, eta ondoren, baldintzak ikusitakoan, horietako batzuek atzera egin zuten. Udalak lokala



Oso ondo tratatu ninduten Ibarren, etxekoa bezala.

Denda 200ko urriaren 19an ireki nuen, bera, iaz egin ditut 12 urte.

Dendan ematen dudana zerbitzua ez da bakarrik salerosketa, jedearrekin hitz egiten duzu, arazoak entzun, aholkuak eman... denetarik.

jaritzen zuen eta alokairu bat, baina hortik aurrerakoaz interesatua arduratzen zen. Azkenerako, bost hautagai haietatik bakarrik geratu nintzen eta nik lortu nuen denda berriaren lanpostua. Denda 2000ko urriaren 19an ireki nuen, beraz, iaz egin ditut 12 urte. Denbora konturatu gabe pasatzen da. Udalarekin bost urtetako kontratuak egiten ditut, eta bost urte pasatzean, kontratua berritzen da.

Eta lehenengo egunak?

Lehenengo egunak nahiko zailak izan ziren. Hasieran kezka handia neukan, ez nekien nola funtzionatuko nuen eta ez nekien jendeak ere nola erantzuko zuten, baina dena oso ondo atera zen. Hornitzaileak topatzea zaila egin zitzaidan. Hasieran denda pare bat ikusi nituen, horietako bat Zaldibiakoa, eta honen bitartez lortu nuen hornitzaile baten telefonoa, Eroskiko komertziala-rena.

Eroskirekin hasi zinen?

Hasieran, Erosle bezala hasi nintzen, eta derrigortua nengoen Eroskiri produktuak hartzera. Ondoren, gauzak gehiago malgutu ziren, eta nik nahi nituen hornitzaleei hartzen nizkien produktuak; hala ere, hasierako pausu zail haietan Eroskiko komertzialak lagundu zidan, eta udalereko jendeak ere bai.

Praktikak egin zenituen?

Ibarren gauza asko ikasi nituen, baina horrelako gauzarik ez. Ibarren ez nuen eskaririk egiten eta ez neukan hornitzaleekin inongo harremanik. Horrek beldurra ematen zidan, zer eskatu, zenbat eskatu, nola eskatu... pixkat galdua nengoen. Denda ireki aurretik, Zaldibiako dendan praktikak egiten aritu nintzen.

Denda baten funtzionamenduan zer da gauzarik zailena?

Nire ustez, saldu behar duzun produktua- ren aurreikuspena egitea oso zaila da eta arrisku guztia zuk zure gain hartzen duzu, produktua ez bada saltzen zuk asumitzen duzu. Adibidez, batzuetan produktu batetik asko ekartzen duzu saltzeko itxaropenarekin eta ez da ezer saltzen; beste batzuetan, aldiz, produktu berdina gutxiago ekartzen duzu eta izugarri saltzen da. Ez da erraza asmatzea.

Baina denda, beti dago produktu ezberdinez betea?

Dendan sartzen zarenean, denetari- ko gauzak ikusten dira, bai kantitatean eta bai barietatean. Produktu horiek ez bada- ira saltzen edo epea amaitzen bazaie, ez dizkirate jasotzen (salbuespen batzuk izan ezik). Horregatik da hain garrantzitsua aurreikuspen ona egitea. Hau hasieran zaila egiten zaizu, baina urteak pasatu ahala gehiago zehazten duzu; hala ere, gaur egun ere galera asko egoten da.

Amak askotan esaten dit, zertarako jarri baratzean halako edo bestelako barazkia, gero dendako barazkiak jango ditugu eta.

Erosleren ondoren?

Hasiera horretan, Eroskiri egiten nion eskaera handiena eta nahiko erosoan zen, baina ikusten nuen jendeak zer erosten zuen eta produktu batzuk aukeratu eta beste batzuk baztertzeko joan nintzen, beti bezeroaren beharretara egokituz. Erosleren ondoren ONDA izatera pasa ginen denda guztiak, Eroskiren aginduz, baina 2007. urtean denda



Ibarre taberna



Lurdesen denda

txikiei hornitzeari utzi zioten. Momentu hura denda berriro irekitzea bazelakoa izan zen, nik bilatu behar nituen hornitzaile guztiak eta zailtasunak pilatu ziren, baina aurrera atera ginen. Dendari Lurdes izena jarri nion, denek "Lurdesen denda" bezala ezagutzen zutelako.

Beste zerbait jartzeko asmoa izan duzu?

Kaxintane ireki aurretik, kafe makina jartzea pentsatu nuen eta harategi bat eranstea ideia ere izan dut noizbait, baina horretarako beste lokal bat eta beste pertsona bat beharko nituzke.

Inoiz gaixorik edo bajarik hartu duzu?

Ez, sekula ez, eta askotan pentsatu dut, horrelako egoera batean, arazo latza izango nukeela. Pertsona bakarra izateak asko mugatzen zaitu, eta horrelako egoeretakoa beste pertsona bat beharko nuke, ni ordezkatu eta deskantsatzeko. Hasieran dena lana zen eta guztia nik egin beharra neukan, gainera ez nuen oporrik hartzen, batik- bat jendea asko begiratzen diodalako eta beraiegan gehiago pentsatzen

dudalako niregan baino. Baina, orain, hamabost eguneko oporrak hartzen ditut abuztuaren, ogia eta egunkaria Kaxintane tabernan erosteko aukera emanda. Hamabi urte pasatu ondoren, gauza batzuk aldatu beharra daukat. Hala ere, esan behar dut, egun berezi edo puntualetan etxekoan laguntza izaten dudala.

Zer aldatuko zenuke?

Pertsona egokia topatuz gero, larunbatak eta igandeak libre izan, leku berriak eza- gutu eta pixka bat bizitzea gustatuko li- tzaidake.

Zein da zure ordutegia?

Nik nahi nuen Ibarre bezala, jendeak la- nera joan aurretik ogia eta egunkaria erosteko aukera izatea, eta horregatik 07:30ean irekitzen hasi nintzen (gero al- datuko nuen esperantzan), baina horrela segitzen dut. Asteko egunetako goize- tan, 07:30etik 13:00etara, eta arratsal- deetan 16:30etik 20:00etara. Beraz, egunean 10 ordu astegunetan eta aste- buruetan, 07:30etik 13:00etara. Ez dau- kat egun bat ere atsedean hartzeko edo lo egiteko, eta hori faltan nabaritzen dut. Hala ere, oso gustura nabil lanean eta



Lurdes Ibarren lanean



Joxepa zena Ibarreko atarian

bezeroekin tratua zoragarria da, baina ordu asko eta urte asko dira, martxa ber- dinean.

Igandeetako zerbitzua apartekoa.

Beni, inguruko herrietan dena itxia ego- ten da eta askotan kanpoko jendea etorri izan zait erostetarako egitera. Jendeak es- kertzen du igandeetako zerbitzua.

Dendaren zerbitzua salerosketa baino gehiago da, ezta?

Dendan ematen dudana zerbitzua ez da bakarrik salerosketa, jendearekin hitz egiten duzu, arazoak entzun, aholkuak eman... denetarik. Eta horrek perso- nalki osatu eta bete egiten zaitu, den- dari huts bat baino gehiago zarela sentiarazten zaitu. Gainera, bestelako zerbitzu batzuk ere ematen ditut: he- rriko informazioa zabaldu, afariren bat dagoenean txartelak saldu, norbait e- txean ez dagoela-eta paketeren bat jaso, kalean giltzak aurkitu dituztela- eta nik jaso...

Eta haurrekin?

Herriko haurrekin oso harreman berezia eta polita daukat; goxoki saltzaileak barik beraien laguna naiz.

Izan al duzu pasadizo edo bitxiki- riarik?

Hirutan lapurtu didate. Horietako bitan, sartu eta gauzak apurtu zizkidaten, baina beste batean lapurreta bitxia egin zi- daten: urdaiazpiko puntak, bizarra mozteko aparra, gazta txikiak, alkohola (whis- kia)... Lapurrak bere behar pertsonaletar-ako gauzak ostu zizkidan. Lapur hau harrapatu eta gauzak itzuli zizkidaten. Beste batean, bi marokoar sartu ziren dendan eta borrokan hasi ziren. Nire erreakzioa berezia izan zen: biei heldu eta dendatik bota nituen. Agian, triki- mailuren bat zen beste zerbait egiteko, baina nik ez nien aukerarik utzi.

Beste horrelako erreakziorik?

Behin, emakume ijito batekin ere izan nuen tirabira. Emakume gaztea, bakarrik etorri zen, gora igo eta ni behean nengoen. Kon- turatu nintzen "Fabada asturiana" lata bat hartu zuela eta gero beheara zetorrean, eskaileretan ezkatatu eta denbora dezente pasatzen ari zenez, berarengana joan nin- tzen eta gonak altxatu eta boten barruan sartzen ari zen babarrun lata. Han uzteko esan eta dendatik bidali nuen. Egia esan, oso konfiantza naiz; ezezaguna bada, pixkat behatuko dut, baina ezaguna bada ez.■



Ibarren lagun taldea mus-ean



Ibarreko tabernan

3 galdera motz

Zer duzu gustuko Itsasondan?

Herri txikia dela eta denok elkar eza- gutzea. Harremana oso gertukoa da.

Zer nabari duzu faltan Itsasondan?

Herritarren aldetik, oso gutxi parte hartzen dugu antolatzen diren ekintze- tan, eta lehenengoa ni neu.

Inoiz izan duzun amets bat?

Askok gustatzen zait bidaiatzea, eta be- reziki, historia daukaten herrialdeak, esaterako Egipto, Grezia...

Itsasondo 2.0 aldizkariak 5 urte eta 20 ale bete ditu

Irakurtzen al duzu aldizkaria?
Gustatzen al zaizu?
Zein atal duzu gustukoena?
Zer berri duzu bereziki gogoan?
Zer berri irakurtzea gustatuko litzaizuke?
Proposamenik ba al duzu?



Emma (37 urte)

- Bai, gustuko dut oso. Irakurtzen dut, bai.
- Iritzien atala gustuko dut, baita lehenagoko kontakizunak irakurtzea ere.
- Herriko mendien seinalizazioaren inguruko artikulua dut buruan.
- Krisi hitza desagertzea gustatuko litzaidake.
- Denen artean egindako aldizkaria izatea.



Maider (14 urte)

- Bai, irakurtzen dut.
- Denak gustatzen zaizkit
- Josu Sarasolaren inguruko artikulua
- Ez dakit.
- Ez dut proposamenik.



Xabier (39 urte)

- Bai, gustuko dut.
- Erreportaiak, iritziaren atala, errezetak gustatzen zaizkit.
- Minari buruzko informazioa
- Bidegorria inauguratu dela jadanik.
- Ez dut proposamenik.



Unai (12 urte)

- Bai, irakurtzen dut eta gustuko dut.
- Denak gustatzen zaizkit
- Ez zait bururatzen
- Gaztelekua egunero irekitzea
- Ez dut proposamenik.

Txikia, itzal luzeko gudaria

Apirilean berrogei urte beteko dira Espainiako poliziak Algortan (Bizkaia) Eustakio Mendizabal 'Txikia' tiroz hil zuenetik. Euskal Herriko historian arrasto nabarmena eta garrantzitsua utzi zuen itsasondoarrak, eta XX. mendeko mito nagusietako bat izan zen.



Txikia, Txindokiko tontorrean.

Herriar askoren gogoan ongi iltzatua geratu da 1973ko apirilaren 19a. Ostegun Santu hartan berri ilunak iritsi ziren Algortatik, Bizkaitik: Espainiako poliziak tiroz hil zuen Eustakio Mendizabal Benito, Txikia itsasondoarra (Itsasondo, 1944 – Algorta 1973). Euskadi Ta Askatasuna erakundeko fronte militarreko buruzagi eza-gunenetako bat zen Txikia, eta polizien jomugan zegoen, aspalditik. Datorren hilabeteen, berrogei urte beteko dira Txikiaren heriotzatik.

1944ko urriaren 9an jaio zen Eustakio. Joxe Mendizabalen eta Arantxa Benitoren semea, lau neba-arreben artean bigarrena zen. Lazkaoko beneditarren komentuan egin zituen ikasketak. 10 urte-ekin joan zen komentura, eta hamabi urte eman zituen han.

Garai haietan, euskal giroa erabatekoa zen komentuan. Han piztu zitzaion Txikiari euskararekiko zaletasuna. Lehenik maite zuen hizkuntza are gehiago estimatzera iritsi zen komentuko urteetan. Eskura zituen euskal liburu guztiak irakurtzen zituela zioten garaiko beneditarrek. Beste idazleek egindako lanak irakurtzeaz gain, lehen poema eta bertsoak osatzen eta idazten hasi zen garai haietan.

Komentuan zegoen urteetan edozein une eta aukera aprobetxatzen zuen euskara eta euskal kultura lantzeko eta zabaltzeko. Bazkari garaian, esaterako, liburu baten irakurketa entzuten zuten fraileek jatordu oro; Eustakiok euskarazkoak irakurtzea lortu omen zuen. Inguruko institutu eta ikastetxeetan ere euskarazko klaseak ematen jardun zuen, eta eskola soziala sortu zuen. Kultur jarduerak antolatzen eta mobilizazioetan parte hartzen ere lehenetakoa izaten zen.

Komentuan ez ezik kalean ere ez ziren falta aldarrika-penak. Gazte eta langile mugimenduak indarra hartzen ari ziren, eta Euskadi Ta Askatasuna erakundea ere hasia zen loratzen.

Pardines guardia zibila hil ostean, Tolosatik ihes egin nahian zebilela hil zuten Txabi Etxebarrieta ETAko militantea, Benta Haundin. 1968ko ekainaren 7a zen. ETA erakundearen lehen militantearen hilketaren harira, protesta ugari egin ziren herriz herri, han eta hemen. Lazkaoko beneditarren komentuan ere Etxebarrietaren aldeko elizkizuna antolatu zuten. Elizkizunaren egunean, ikurrina handi bat jarri zuten Eustakiok komentuko dorrerik garaienean. Meza ematen ari ziren unean, polizia sartu ziren komentura, dorrean jarrita zegoen ikurrina berehala kentzeko aginduz.

Poliziarekin izan zuen lehen liskarretako bat izan zen Etxebarrietaren aldeko mezan gertatutakoa. Gutxira, manifestazio batean parte hartzeagatik Gobernu Zibilak isuna ezarri zion, eta, ordaindu nahi izan ez zuenez, espetxeratu egin zuten Martuteneko kartzelan, hilabetez. Espetxeko hilabeteko egonaldi hartan ere euskarazko klaseak ematen aritu zen Eustakio.

Martutenetik irten ostean, denbora gutxi iraun zuen Lazkaoko komentuan. Teologiako ikasketak ia-ia amaituak zituela, mezak ematen hasteko gutxi falta zitzaioela, baimena eskatu zuen komentuan, Beasaingo lantegi batean lanean hasteko. Hango lanak amaituta, Bilboko untzigintza enpresa batean aurkitu zuen hurrengo lana, eta Bizkaiko aldera joan zen. 1968. urtea zen. Euskadi Ta Askatasuna erakundean sartu zen garai hartan.

Adiskide bat atxilotu zutela-eta ihes egin zuen Bilbotik. Adiskidea atxilotu eta gutxira agertu ziren polizia Txikiaren etxera. 24 orduz egon ziren haren zain etxean, baina, alferrik, haiek bila joaterako ihes egin baitzuen itsasondorak.

Ihesaldi hartan, beneditarrek Estibalizen duten komentuan hartu zuen babesa. Denboratxo batean han egon zen ezkutatua, Bidasoa zeharkatzeko aukera sortu zitzaion arte. Behin Bidasoa igarota, Lapurdin zen Txikia. Belokeko komentua izan zuen ihesaldi hartan hurrengo ezkutalekua. Hilabete mordoxka egin zituen han gordeta. Belokeko egonaldian errefuxiatu ugari ezagutzeko aukera izan zuen Txikiak. Beste lau iheslarirekin Baionan jarri zen bizitzen lasterrera.



Bentzio Etxebarriarekin; denbora gutxi barru hilgo zuten Eustakio.

Baionan ezagutu zuen Anabel Zubikarai ondarroarra. Haren bikotea izan zen, eta bi seme izan zituzten: Matalaz eta Ekaitz. Lazkaon Teologia ikasketak egindakoa izan arren, ez ziren elizatik ezkondu, eta bi semeak ere ez zituzten bataiatu.

Donapaleu (Nafarroa Beherea) ondoko herri txiki batean jarri zen bizitzen bikotea, Garruzen. Laster ohitu zen hango bizimodura Eustakio. Inguruak betidanik ezagutuko balitu bezala ibiltzen zen hara eta hona, askotan bere mobiletean eta gabardina berdea soinean.

Birritan atxilotu zuen polizia frantsesak. Bietan muga inguruan eta arma aldean zuela. Bigarren atxilotetan, kartzela ere ezagutu zuen. Gero, Poitiersera konfinatu zuten. Berehala ihes egin zuen handik. Ezkutuan denboratxo bat egon ondoren, berriro ere hegoaldera itzuli zen.


Jendearekin harremanak izan, hitz egin eta euskal jendea lanean jartzeko izugarritzko gaitasuna eta nortasun berezia zuen Txikiak. Hala oroitzen dute erakundean harekin aritutakoek. Elkarrizketetan ere ez omen zuen ezer esaten, gainerakoen hitza entzun arte. "Hitz gutxiko" mutila zela oroitzen du Peixoto lagunak. Haren esateko modua egitea omen zela dio.

Garai haietan, jende beharrean zen Euskadi Ta Askatasuna erakundea. Taldean bertan izandako gorabehera, eztabaida, liskar eta zatiketen ondorioz, ia militanterik gabe geratu baitzen erakundea. Txikiak erakarri zituen asko eta asko, iparraldean zein hegoaldean. Erakundean aritu zirenentzat Eustakiok pertsonifikatzen zuen taldearen aparatu militarra. Lan handia egin zuen erakundean. Hala gogoratzen dute taldekideek.

Ekintza esanguratsuetan parte hartu izana leporatzen diote garaiko agiri ofizialek: Behil kontsularen eta Zabala eta Huarte enpresariaren bahiketetan; Gipuzkoako Sindikatu Bertikalaren hainbat bulegori su ematen; Hernaniko harrobitik hiru tona dinamita lapurtzen; Orbegozo eta Paisaiko kamionetak lapurtzen...



Eustakio jaunartze egunean.



Telesforo Monzonek Txikiari eskaini zion abestia

Txikia

Txikia zuen guda-izena bera gizon osoa izan arren. Mendizabal, Sasetaren hurrena biak txiki, bizkor eta lerden. Saseta hil zen gudarien aurrean, Mendizabal hil zaigu bakarrik, baina biek daukate herri osoa atzo ta gaur euren atzetik. Euskadi'rentzat hil dira-ta gorputzak arantzaz beterik.

Harro hadi Kantauri itsasoa ta haien betiko loa betiko kanta zak. Geroari esaiok olatuetan herri izarrak ez direla itzaltzen. Gure hurrek biharko ikastoletan heien izenak abestu ditzaten, arantzetan biak hil baitziren.

Geroari esaiok olatuetan herri zaharrak ez direla itzaltzen. Gure hurrek biharko ikastoletan heien izenak abestu ditzaten, herriarentzat biak hil baitziren.

Atzoko eta gaurko gudarientzat gure maitasunezko begirunea.

Eustakio Mendizabalek idatzi zuen bertsoetako bat

Ama, txukatu malkoak

Aralar mendi txit gendorrean, Ama Euskera nekusan, arratsa bezin goibel, negarrez umetxo bateren gisan: biotz-barrengo negar-zotinak ezin zituala jasan... "Zer duzu, Ama?" galdetutzean, onelatsu zidan esan:

"...Zeruetako Jainkoak naita milla urte anitz dira Euskal-erriko lur done ontan, sortu nintzala argira. Ainbat gizaldi ondorenean, gaur-egun seme, begira... Seme-alaben burla-ixekak naramate il-obira!

Ikastol eta eliz askotan atea didate itxi: atzeritarrak ta seme askok lapur bat antzo ezetsi! Nere izena apaldu arte iñoiz ezin dute etsi... Zer egin diet etsai bezela ainbat nazaten gaitzetsi?

Izkuntz arrotzak dira nagusi mendi, enparantz, kalean... Irrati eta aldizkariak datoz erdera elean. Euskera ortxe baso, sukalde, txoko apalki batean... Mamur ta mintzul, ezin besterik ke, negar, zotin artean.

Azken gudate ondorengo hoge ta sei urteetan erderak arro dabilzt, erronka, zazpi Euskal-errietan. Ni berri emen, sorterri bertan, bizi-arnas azkenetan... sukal-txokoan negar egiñaz aiton-amon mingaiñetan!

Euskal-erriko bazter denetan atzerrian antzo nabil... Ez-ezagunen artean aur bat beziñ apal eta ixil! Ene burua gara ez dediñ ba-ditut milla maratil... Gaiztagiñai lez, arrano begiz, etsaiak so ditut urbil!

Erdaldun dira mendi-zaliak eta hamaika sukalde! Bereaz aztuz erdal-izkuntzaz asko itsutuak daude. Aberri eta euskal-izenak guziz zaie arrobide... ta antziñako oitura zarrak oro nai lituzke gorde!

Euskal-erria gorde nai dute, eta nik damaiet lotsa... Seme-alabak ola ikustea Amarentzat zein mingotsa! Aberri-muiña galdu ezkeror, zertarako dute kutxa, azalez eder izanda ere barrendik bai dago utsa?

Euskal odola daramazu ta, zeranez ene soin-atal... Aur-adiñetan artu zendunez neregan atsedeen-magal... Ainbat oztopoz etsai artean bein betiko ez nadin gal... Ai, seme laztan, lasterreren laster, enegaz zaitez urrikal!

Aberriaren muiñ ta oiñarri ni naizela zaitez oroi, ta ez nazazu luzaro utzi izkuntza arrotzen morroi! Ene burua gortutzea ziñez nai ba' duzu, otoi, buru-belarri biur lanera, oraintxe bai duzu sasoi"

"Ai, Ama kutun! Erantzun nion, itzali zazu negarra! Ortz-illunean ñirñir bai dago oindik itxaron-izarra. Askok baztertu ba' zaituzte're, zu zaitugu, izkuntz zarra, ele denetan, biotz-niniaz maitatzen dugun bakarra!

Etzazu geigo zure negarraz samindu euskal gogoak... Negu otzari jarraiz bai dator denbora obeagoak. Zeru goi-goitik esku luzatuz oro dezaken Jainkoak, loraz jantziko zera berriz ta AMA, TXUKATU MALKOAK"

Mendizale porrokatua zen, eta, denbora librea zuen aldiro, mendi buelta egiteko baliatzen zuen. Lanean hasi zenean ere, lortutako lehen soldatarekin, mendiko botak eta bizkar zorro bat erosi zituen. Mendiak ziurtasuna ematen zion Txikiari. Babesleku gisa hartzen zuen, ihesbide bezala. Edonora zihoala ere, horixe omen zen egiten zuen lehen galdera: “Non da mendia? Eta ihes egiteko nondik?”. Bilbora joan zenean ere horixe izan omen zen taldeko kideei egindako lehen galdera.

Mendiarekin batera, euskara zuen beste zaletasuna. Denbora librerik hartzeko modurik bazuen, euskarazko liburuak irakurtzeko zela zioen Anabel Zubikarai bikoteak. Nabaria da euskarazko lan ugari irakurritakoa dela, lapurterako zein bizkaierako hitzak txertatzen baititu bere idatzietan.

Mordoxka idatzi zuen komentuko urteetan eta baita gerora ere. Txikiak idatzitako poema eta bertso haietako batzuk Hitz etena — Txikiaren olerkiak (Susa, 1992) liburuan bildu zituen Jon Aranok. Beneditar izan zen garaian idatzitako bertsoak eta Oleriti aldizkarian argitaratutakoak baino ez ditugu ezagutzen, ordea; gutxi batzuk baino ez, beraz. Beste bertso eta poema ugari betirako galdu dira, klandestinitatean edota poliziek miaketetan eramandako paperen artean desagertuta.

Haren ustez, euskara zen bizitzaren eta lanaren ardatz, borrokarako arrazoi. ETAren marko politikoa zein zen galdetu omen zioten behin, eta bizkor erantzun omen zuen Txikiak: “Gure borrokaren marko politikoa, hizkuntzak ematen duena”.

Langilea, bizkorra eta abila omen zen. Pazientzia eta intuizio handikoa. Hala oroitzen dute harekin lan egin eta hura ezagutzeko aukera izan zuten taldekideek. Haiek diotenez, intuizio horrek salbatu ei zion bizia behin baino gehiagotan.

Ez Algortan, ordea. Ez 1973ko apirilean. Azken hilabeteetan, Txikiari segika zebilen polizia. Hil aurretik ere eskapada ederra egin zuen Zumarragan. Gorriak eta bi ikusita, hilerritik ihes egitea lortu zuen aldi hartan.

Ez zituen oso gogoko hiri handiak, baina Bilbora joan beharra zeukan. Carrero Blanco almirantearen kontrako erasoak prestatzen ari zen Euskadi Ta Askatasuna erakundea, eta baita beste hainbat ekintza garrantzitsu ere: Bizkaiko Labe Garaietako eta karneten lapurreta, kasu. Haiek antolatuta eta prestatzeko Bizkaiko hiriburura joan zen Txikia.

Bilbon trenea hartu eta Algortara joan zen, 1973ko apirilaren 19an. Hitzordua zuen Jose Manuel Pagoaga ‘Peixoto’ lagunarekin. Zehaztutako ordurako zain zuen Peixoto, baina ez Peixoto bakarrik, baita poliziak ere. Trena, geltokia, herria... inguruak poliziaz josita zeuden.

Poliziaz inguratuak zeudela ikustean, korrika abiatu ziren Peixoto eta Txikia. Laster hasi ziren poliziak tiroka. Peixotok ihes egitea lortu zuen; ez, aldiz, Txikiak. Ipurmasailean tiro bat jaso zuen itsasondoarrak. Hala ere, korrika jarraitu zuen, eta auto baten barrura sartzea lortu zuen. Poliziak oso hurbil zituen, baina, eta polizietako batek tiro egin zion, gertu-gertutik. Hilzorian egon arren, eskuburdiak jarri zizkieten, eta Basurtoko ospitalera eraman zuten. Ez zuen ordu erdirik egin bizirik.

Hil eta hiru egunera, Aberri Egunez, eman zioten lurra Txikiari, Itsasondon. Inolako omenaldirik egin gabe, gorpua berehala ehorzteko agindua eman zuen Espainiako Gobernu Zibilak. Agindutakoa zintzo betetzen zela ziurtatzeko edo, poliziaz bete zen herria hileta egunean. Herri-tarrek, beraz, ezin izan zuten nahi bezala agurtu Eustakio Mendizabal Txikia. ■



Alkondara zuriarekin Txikia 1.967an ikurriña musukatzen.

Guarasoen aurkako indarkeria



Gizarte zerbitzuek familien barnean ematen diren egoera ez egoki askotan eskuhartzen dute. Adingabeak tartean daudenean, gurasoen kontratuzko ardurazko portaerak ematen ez direlako familian, gizarte zerbitzuak eskuhartzen dugularen iritzia dago. Ez dago oker, zoritxarrez askotan, familia guztiek, bere adingabeen behar guztiak ondo asetzen ez dituztelako motibu ezberdinenagatik. Baina gaurko honetan, familietan gertatzen diren beste egoera batzuen inguruan aipamena egingo dugu: seme-alabak gurasoen aurkako indarkeriari buruz hain zuzen ere.

Azken urteotan, gurasoen aurkako indarkeriak hazkunde nabarmenea izan du. Batetik salaketak gora egin dute eta bestetik, osasun, gizarte eta beste sistema batzuetan, eskaerak gora egin dute ere.

Baina zer da indarkeria mota hau? Orokorrean eta laburki esanda, seme-alabek bere gurasoen aurkako eraso fisiko edo ahozko erasoak. Normalean, indarkeria agertzen den beste ziklo batzuetan bezala, deskalifikazioez eta irainez hasi eta gero meatxuak eta objektuen suntsiketara pasatzen da, azkenik, eraso fisikoak agertzeko eta jarraituz gero, azken hauen larritasuna gora eginarte. Emakumezkoen kontratuz egiten den indarkeriarekin bezala, indarkeria agertuz gero ez da gelditzen eta helburua, erabakiteko obedientzia eta kontrola lortzea izaten da.



Indarkeri mota hau era desberdinetan ager daiteke: txistu botatzea, bultzatzea, jotzea, objektuak botatzea, atetan edo pareteetan kolpeak ematea, garrasiak, mehatxuak, irainak, manipulazioa, bere buruaz beste egiteko edo etxetik joatek meatxuak, ondasunak lapurtzea...

Datu eta ikerketen arabera, kontuan hartu behar dugu.

- Indarkeri mota honek ez dela gehiago kultura edo jatorri batzuetan ematen.
- Seme eta alaben kasuak izaten direla eta mometuz ezin dela esan, mutikoetan gehiago agertzen dela.
- Erasoak jasotzen dituzten gurasoak, adina eta sexu ezberdinetakoak direla, patroiz zehatz agertu gabe

Indarkeri mota hau jasaten ari zaren jakin nahi baduzu, galdera hauen inguruan gogoeta egin dezakezu: nire seme-alabak molestatzeak beldurra ematen dit eta ekiditen ibiltzen naiz?; kontuz nabil bere nahiak eta premiak asmatzeko?; bultzatzen nau, jotzen nau edo etxean kolpeak ematen ditu? Meatxuak jasotzen ditut? Behin eta berriro kritikatzan nau edo isilarazten nau?; bere jokabideak errudun egiten nau...

Zer egin horrelako arazo baten aurrean banago edo zalantzak baditut? Gizarte zerbitzuetara hurbildu eta batez ere gogoan izan:

- Denborarekin ez dela desagertuko
- Ez dela zerbait arrunta
- Zu ez zarela indarkerri horren erruduna edo ardura-duna

Eta garrantzitsuena: kontuan izan konponbidea duela baina horretarako zuen seme-alaba osasun eta gizarte zerbitzuen laguntza behar izango duela eta familia guztien partehartzea ezinbestekoa izango dela. ■

Orreaga 778-824

Aurreko otsailaren 27an, euskaldunon historian erabakigarriak izan ziren gertakizunez hitz egin zigten Nabarraldekoek. Elkarte horren kide Beñi Agirrek “Orreaga 778-824” dokumentala aurkeztu zigun.

Dokumentalaren helburua da batailaren “ikuspegi propioa” ematea, hizlariaren esanetan, “orain arte izan ditugun bertsio arrotzak alboratu eta euskaldunon ikuspegitik errelato historiko propioa eraikitzea. Orreaga inguruetan jokatutako gudaldiak Euskal Herriaren historian “mugarri” izan omen ziren. Horren inguruan sortu diren mito eta elezaharrak Europako kulturaren parte bilakatu dira. Adierazle garbiena da La Chanson de Roland poema epikoa; bertan, sarrazenoen eta frankoen arteko gatazka gisa narratzen dute Orreagako lehen bataila, 778koa, alegia.

Karlomagno galdutako gudua milioika pertsonen eza gutzen dute. Frantses eskoletan nagusiki, baina Europa osoko ikasleen artean ere irakasten da elezahar horren narrazioko zatia. Gertakari haren inguruan kontinenteko kulturaren eta irudimenaren pizgarri izan diren istorio asko sortu izan dira, eta oraindik ere sortzen dira. Duela urte pare bat, holandar bat etorri zen Donostiara, eta gudua bertsiorik ospetsuena gezur hutsa zela jakin ondoren, dokumental historiko bat filmatu behar zuela deliberatu zuen. Baita filmatu ere. Bertan, kontatzen du ez zirela izan musulmanak Karlomagno garaitu zutenak, Chanson de Roland delakoak dioen bezala, baskoiak baizik. Historiaren mito bat eraitsi zuen, eta beste bat sortu. Pirinioetako herri basati, isolatu, gutxitu eta primitibo hartako kide batzuk, hirurehun laguneko artzain talde batek, garai hartako armada kristau boteretsuena garaitu zuela, hain zuzen. Berrero ere kondairazko balentria sinestezin eta fantastikoa kontatzen dute gutaz.

Harrigarria da oraindik ere guda haien bertsio xelebreak onartzea, eta guk, gertakariaren protagonistok, herri honen ikuspegitik egindako narrazio propioak ez edukitzea. Oraindik ere, Roldan “heroiaren” abenturak txalotzen dira gure artean. Baskoien hiriburu historikoa suntsitu zuenari monumentu bat jarri zaio gudua galdu zuen lekuan bertan, eta irabazleei, haren ondoren euskal Estatu sortu zutenei, inongo aipamenik egiten duen oroigarriak ere ez zaie eraiki.

Zor historiko hori kitatzeko aldera, Nabarraldeko dokumental bat -DVDa- egin du ikuspegi propioa eman eta kanpotarren mito horiek deusezteko. Gertakariak ikertu, arrazoizko testuinguruan kokatu eta narrazio propioa egin du. Ez ziren izan artzainak soilik, ez ziren herri isolatu batetakoak, ez ziren hirurehun bakarrik, ez eta garai hartako beste europarrak baino primitiboagoak ere. Hain zuzen ere, baskoien herria, kulturaren eta merkataritzaren Europako bide nagusietako baten erdian zegoen. Bordeletik Astorgara zeraman bidearen gune nagusienetako bat zen jada erromatarren garaitik. Iruñea zen baskoien hiriburu eta tokirik populatuena. Karlomagno, Zaragozako porrotaren itzulian, hiriaren harresiak suntsitu, su eman eta arpilatu egin zuen hiria; bistan denez, ez zen bertakoen lagun. Haserre zen baskoien lurraldea menderatzen ez zuelako. Bertakoek, ongi antolatuta eta armatuta, gudua egiteko lekuri egokienean itxaron zioten. Jipoitu egin zuten Karlomagnoaren atzera-guardia. Frankoen eta Erro-



mako elizaren porrot ikaragarri hura historiaren pasarte handi bat bezala jaso dute, baina, mitoez apainduta. Haien jeneralak hil zituzten, Errolan bertan hil zuten eta enperadorea bera ozta-ozta atera zen bizirik.

Baina, hura ez zen izan baskoiek armada frankoari eragindako porrot bakarra. Karlomagnoen semeak, Ludovico Pio, zailtasun berberak izan zituen Iruñean eta Orreagan. Horrez gain, bere biloba Pipino ere leku berean garaitu zuten. Ez da posible 778tik 824ko urte tarte horretan Erromako eliza eta haren ejerzitua zen karolinjoen armada indartsuari eraso egiten zietenak, eta irabazten zietenak, hirurehun artzain alproja izatea. Are gutxiago, kontuan hartzen badugu azken garaipenaren ondoren frankoak mendeetan ez zirela itzuli eta une horretan Iruñeko erresuma sortu zela.

Orreagakoa prozesu bat da. Ondo antolatutako baskoiek musulmanen, franko-kristauen eta godoen erresumako erasoaren defentsan erresuma propioa eraikitzeke erabakia erakusten duen prozesua da Orreaga 778-824.

Horiek kontatzeko talde indartsua bildu du Nabarraldeko. Angel Rekaldek egin du gidioa; Antton Curutcharry, Koldo M. Garate eta Beñi Agirrek egin dute historiaren narrazioa; Beñat Etxamendi, Basile Ibañez eta Anjel Aintziburuk Orreaga inguruan egun mantentzen diren leienak eta pasarteak kontatu dizkigute, Iñigo Elosegik off-eko ahotsa jarri, Joxan Goikotxeak musika, eta horrekin guztiarekin Luis Gurrutxagak dokumental bizi, sinesgarri eta balore historiko handikoa josi du. Horiei denei esker, gaur badakigu gertaera haietatik aurrera Iruñeko erreinu independentea (gero Nafarroaren izena hartu zuena) sortu zutela baskoiek, gaurko euskaldunon arbasoek. ■

Beñi Agirre



Orreaga 778-824

Gipuzkoaren sorreraren inguruko hitzaldiari jarraiki, Orreaga 778. urtean izandako gudaren inguruko tertulia eta 'Orreaga 778-824' dokumentalaren proiektzioa izan ditugu pasa berri den hilabetearen Itsasondoko haur-txokoan Nabarralde erakundeko kide Beñi Agirre historialariaren eskutik. Bertan, Orreagako gudaren inguruko kontaketa zabalaz goatzeko aukera izan genuen, Frantziaren horren eza gunea den historia lurpera bota eta Karlomagno galtzaile gisa ipini, herri txiki baten garaipena nolakoa izan zen azaldu baitzigen. Orreagako gudaz haratago, Euskal Herriko historian hain garrantzitsua den Iruñeko erresumaren sorrera, Eneko Aritza lehen erregearen izendapena... bezalako gure historiako pasarteak azaldu zizkigun Beñik, besteak beste. “Zaragozara zihoan Karlomagno, kristautasunaren marka izenekoa Ebro inguruan ezartzera. Penintsulan, musulmanak zeuden, eta iparraldean, Erromako Eliza eta frankoen inperioa. Azken batean, Erromako Elizaren kristautasunaren ordezkari nagusia zen Karlomagno, oraindik ez baitzen enperadore. Gertakari bat izan zen orduan: Zaragozara iritsi zenean, hiriko ateak itxita zeuden. Itzultzerakoan, Iruñea suntsitu zuen, baskoien gune nagusia zelako. Orreagan, berriz, baskoiek zain zituen. Baskoiek, ongi antolatuta eta armatuta, gudua egiteko lekuri egokienean itxaron zioten. Eta jipoitu egin zuten, frankoen galera ikaragarri hura historian jasota geratzearaino”.



17. Ibilbidea

Mutiloa-Mutiloa

Meatze Trenbidea (1898-1927)

Deskribapena: Mutiloatik aterako gara eta "Troi bidea" deritzona jarraituko dugu. Troi erreka jaiotzen den lekurantz abiatuko gara. Lekarango zentralera iritsitakoan, informazio panela eta jarraitu beharreko norabidea ikusiko dugu. Errekari jarraituz, Barnaola baserriraino iritsiko gara. Hemen, zailtasunik gabe, "Bide Berdea"ri helduko diogu. Danborrera ailegatatukoan, inguruan bueltatxo bat emango dugu instalazioak ikusiz, eta gero, buelta etorri garen bidetik egingo dugu Lierniraino. Mujika jatetxearen parean, arrasto zuri-horiak jarraituko ditugu, eta ondoren, errepideari helduko diogu, Mutiloaraino. ■

Iraupena: 2 ordu eta 40'

Ibilbidea:
Mutiloa-Barnaola: 40'
Barnaola-Danborre: 75'
Danborre-Lierni: 30'
Lierni-Mutiloa: 15'



01 Olano baserria



02 Lenkaran zentrala



03 Panel informatiboa



04 Barnaola baserria



05 Makinetxe



06 Bide berdea



07 Bide berdearen bukaera



08 Danborre



09 Lierni

Mutiloa 10



3.646 zuhaitz

3.646 zuhaitz eta zuhaixka landatu dira denera 2013ko neguan Itsasondon.



Zenbait herritar zuhaitzak jasotzen.

Nahiz eta askotan eguraldiak ez lagundu, negua (edo udazken bukaera) da garai aproposena landaketarako, landarea “geldi” dagoenean, aktibitate gutxi duenean, alegia. Horrela, ekimen ezberdinak jarraituz, urtarila eta martxo artean 10 zuhaitz espezie baino gehiago landatu dira udalerrian, ekimen guztiek helburu amankomun bakarra izanik, Itsasondoko natura zaintzea eta emendatzea.

Otsailaren 21ean, urtero bezala, herriko txikiekin Zuhaitz Eguna ospatu zen. Egun horretan, Beitia parkean hainbat espezie landatu ziren: otsalizarrak, gereziandoak, haritzak, lizarrak, sagarminak, astigarrrak, ezkiak...

Bestalde, aurten ekimen berri bat hasi du Udalak. Baserriarregana eta landa-lurretako jabe pribatuengana iritsi eta elkarlan akordioak lortzeko zailtasunak ikusirik, aurten herritar ororen eskura utzi nahi izan ditu fruta-arbola espezie ezberdinak. Ekimen honen bitartez, 145 fruta-arbola banatu eta landatu dira herritarren artean: sagarrondoak, aranondoak, intxaurreondoak, mizperak, gaztainondoak...

Herritarrek parte hartu duten landaketez gain, badira beste hainbat landaketa Aranzadiko Botaniko Sailaren gidaritzapean eta arlo honetako profesionalen laguntzarekin batera aurrera eramanez, inguruko baso naturalak berreskuratzeko helburua zuten landaketak, hain zuzen ere.

Horien artean, garrantzi berezia dute Oria eta Zubiñerrek ibai-ertzetan haltzadiak berreskuratzeko egindakoak eta Murumendiko tontorretik gertu ametz ilaundunaren basoak eta pagadiak berreskuratzeko egindakoak. Horien bitartez, azken urteetan atzerakada handia jasan izan duten baso naturalak indartu nahi izan dira. Horrela, Zubiñerrek eta Oria ibaien ertzean haltzak, lizarrak, sahasak, intxusak, e.a. landatu dira. Murumendi inguruan, berriz, ametz ilaundunak, pagoak eta elorri zuria landatu dira batez ere.

Horrela, elkarlanean, bai naturaren kontserbazioari bai herritarren bizi kalitatea hobetuko duen ingurua sortzen laguntzen ari gara pixkanaka.

Azkenik, hona hemen landaketak egoki egiteko gomendio batzuk:

- Landatzerakoan, hazkuntza errazagoa izan dezan, landarea inaus daiteke, batik bat sustraiaren eta adarkaduraren arteko desoreka dagoenean, edo adar gaixo ala hautsi bat ikusten denean.
- Sustraiak landarea birlandatu arte hartu duten forma mantentzen dezan saiatu behar da.
- Landaketaren ondoren garrantzitsua da landarearen inguruko lurra oinekin zapaltzea, landarea tente mantentzeko, lepotik suabe goraka tira eginez.
- Lurra oso lehor edo euriteen ondorioz astunegi dagoenean landaketarik ez egin. ■



Sustraiak ondo sartzeko moduko zuloak egin. Zuloen artean lau pausoko distantzia utzi.



Zuloaren hondoa lur soltea bota; horrela, landareak ondo garatzea eragotziko dion hondo gogorregirik ez duela ukitutako ziurtatuko dugu.



Hazitegia moztu landare gazteak hazteko lekua izan dezan (Ontzia birziklatu!)



Zuhaitz-landarearen sustraiak zuloan sartu eta lurrez ondo estali.



Zuhaitz-landarearen inguruko lurra zapaldu, baina gehiegi trinkotu gabe. Ondoren ureztatu sustraiak ondo itsatsita eta trinko gera daitezzen.



Zuhaitz-landareak ondo itsatsita eta zuzen geratu behar du.

Ordenagailu topaketak



Programadoreen, internauten, jokalarien, diseinatzaileen eta hainbat informatika zaleren esperientzia konpartitzen.

Otsailaren 28an egin da berriro ere Gipuzkoako ordenagailu topaketarik handiena: Gipuzkoa Encounter-a. Aurten ere Tolosan egin da, zazpigarren aldiz. Bertan, 460 informatika zale sutu; beraien esperientziak eta afizioak elkar banatu dituzte.

Topaketa hauetan, merkatuan atera diren azkeneko informatika nahiz telekomunikazioko teknologia ikusi daiteke. Horrez gain, merkaturatu diren azkeneko jokoak eta parte-hartzaileek arte digitalean egindako lanak ikusi daitezke.

Jendeak pentsatzen du, topaketa hauek bakarrik jolasteko eta gauzak deskargatzeko direla. Baina, hori ez da guztiz egia; egia da abiadura handiko konexioa dagoela; aurten, ia 2GBko konexioa egon da Tolosako topagunean. Baina, lehiaketak ere badaude, hala nola, arte digitaleko lehiaketak.

Ordenagailu topaketa hauetan, normalean 4 perfil/talde desberdineko parte-hartzaileak bereizi daitezke. Hori da interesgarriena eta bizia ematen diona. Topaketa hauek publiko mota askori daude irekita.

Arte digitaleko lehiaketetan 3D diseinatzaileak, bideo edizioa, marrazketa eta musika konposaketa daude. Sail bakoitzean, parte-hartzaileak bere lanak aurkeztu ditzake. Azken finean, talde honek erakusten digu zer egiteko kapaz garen ordenagailu batekin. Ordenagailua aisialdirako bakarrik balio duen tresna bat ez dela erakusten digu.

Hardware-aren zaletasun handia duten parte-hartzaile asko daude. Talde honek ordenagailuaren kapazitatea zutuzten du, ahal den errendimendu handiena ateratzeko. Talde hau informatikako azkeneko teknologiek ibiltzen da beti.

Software askeak atsegin dituztenak ere ikusi daitezke. Talde honek sistema eragile askeak erabili eta gomendatzen dizkio topaketan dagoen jendeari. Normalean, Linux sistema eragilea erabiltzen duen taldea da, eta baita doako programak promozionatzen dituen ere.

Jokalariak ere ikusi daitezke. Azkeneko talde hau izaten da handiena; izan ere, ordenagailua edukita, nork ez du partida txiki bat jokatzeko? Topaketa hauetan beti egoten dira jokalaritza taldeak (clanak) prest joko txapelketatan parte hartzeko.

Ikusten duzue, informatika zale asko daude, baina denek ez dituzte gustu berberak.

Esperientziak esaten dizuet: 10 urte daramat topaketa hauetara joaten, eta esperientzia oso positiboa da. Beti dago zerbait berria ikasteko, eta gainera, beti edukiko duzu zerbait zerbait irakasteko. Topaketa hauek ez dira bakarrik zure lekuan eserita egoteko eta pantaila aurrean orduak pasatzeko.

Tolosakoa jadanik bukatu da, baina hemendik hilabete batzuetara Bilboko topagunea etorriko da. Euskal Herriko eta Europako handienetako bat. Eta, ni berriz ere han egongo naiz. ■

Asier Bazaga



LOMCE

Izan nahi duguna ukatuz, nahi dutena izatera behartu nahi gaituzte!

Azken egunotan bolo-bolo dabilen gaia da hezkuntzaren erreformarena. Ikasleak garen aldetik, eten-gabe iristen zaigu gai honi buruzko informazioa, baina ba al dakigu benetan zertan datzan eta zein puntura arte eragingo digun "Ley Orgánica de Mejora de la Calidad Educativa" (LOMCE) delakoak?

Espainiar estatuan, hezkuntzan, ez dute alderdi politiko nagusien arteko paktuek agindu, hezkuntza abagune politikaren menpe egon izan da beti, alegia, gobernuaren egokitzen zen alderdi politikoak bere ideologiaren arabera hezkuntza legea inposatu du eta hezkuntza komunitateko partaideok ez dugu inongo eskumenik izan.

Norbanako nahiz kolektiboaren eskubideak bermatuko dituen hezkuntza eraiki ordez, herriaren mesedetara egongo den hezkuntza eredua eskaini beharrean, merkataren logikaren baitan inposatuko den hezkuntza eredua da LOMCE.

Hezkuntzaren inguruko erabakiak espainiar estatuak definitzen ditu; horrela, estatuak Derrigorrezko Hezkuntza zorrotza markatzen du, eta hortik aurrera hasten dira erikidego autonomoen eskumenak, betiere estatuak ezarritakoaren gainean.

Orain arte, hezkuntzan txarre-rako aldagetak pairatu ditugu; izan ere, Madrilgo nahiz bertako gobernuak atera dituzten lege eta dekretuen ondorioak pairatzen ditugu. Azken urteotan ikasle kopuruak gora egin du, eta aldiz, hezkuntzako langileen kopuruak, behera. Horrek, beste gauza askoren artean, hezitzaileen formazioa eta ikasleen eskualduntzea oztopatzen du, eta era berean, edukiak irentsi eta memorizatzen kondentatzen gaituzte.



Hezkuntza erreforma honekin PPK bere ideologiaren arabera hezkuntza ezarri nahi du:

- Lege dekretuz ikasleria sexuaren arabera bereizten duen hezkuntzari bide emango dio, bereizkeriaz jokatzen duten ikastetxeak diru publikoz finantzatzuz.
- Partaidetzan oinarritutako eskola inklusiboa bul-tzatu ordez, bereizkeria eta klasismoa ahalbidetzen ditu.
- Eskola porrotari dagokionez, arazoari pedagogikoki eta irakurketa integral batez aurre egin ordez, arazoa ezkutatzeko saiatzen da eta ikasle "adimentsuak" eta "inozoak" bereizten ditu, ikasleak heztera barik titulua ateratzera soilik bideratuz.

Erreforma honek hiru aldaketa nagusi izango ditu: alde batetik, egitura osoa aldatuko dute, hau da, zikloak desagertu egingo dira. Bestalde, curriculumean ikasgaiak hiru ataletan hierarkikoki sailkatuko dituzte: 1. Tronkalak (oinarrizkoak) 2. Espezifikoak eta 3. Espezializazioak, euskara hirugarren maila honetan kokatzen dutelarik.

Azkenik, etapa bakoitza amaitzean rebalida edo azterketa nazionala egin beharko dute ikasleek, eta nahitaezkoa izango da probak gaituzte titulua jasotzeko.

Gure ustez, onartezina da euskararekiko hartu duten jarrera. Ikasleak garen aldetik gure hezkuntza eredua definitzeko eta erabakitzeko eskubidea izan beharko genukeela uste dugu. Gaur egun arte eduki dugun autonomia eskasa lapurtzea dute helburu, zentralizazioa aurrera eramanez.

Izan nahi duguna ukatuz, nahi dutena izatera behartu nahi gaituzte! ■

Itsasondoko Gazte Taldea

Aste Santuko oporrak

Itsasondoko Udalak hainbat tailer eta ekintza egingo ditu Aste Santuko oporretan, 6-10 urte bitarteko herriko haurrentzat. Hain zuzen ere, martxoaren 25ean eta 27an, ludotekan, 10:30etik 13:00etara. Haurrek barazkiekin mural berezi bat egiteko aukera izango dute, eta baita fruta brotxeta batzuk prestatu eta probatzeko ere. Horrez gain, hainbat jolas egiteko aukera izango da.

Gaztelekuko nerabeek, berriz, egun osoko irteera izango dute, martxoaren 26an.

Martxoaren 29an eta apirilaren 5ean Gaztelekua itxita egongo da. ■



Ludoteka

Badira gutxi-gorabehera hilabete pare bat udal-letxe berrian ludoteka dugula. Guraso elkarte bezala, honetaz guztiaz hitz egiteko Udalak irekitako prozesuan beste eragile eta norbanako batzuen artean parte hartu dugu.

Iritzi asko izango dira ziur aski leku honen erabilpenaren egokitasun eta probetxugarritasunaren inguruan; batzuek altzari txukunak jartzea ezinbestekotzat jotzen dugu, beste batzuek pentsatzen dugu haurrak bertan jolasteko jostailu aukera handia egotea nahitaezkoa dela... Eta horrela, zerrenda luze bat osatuko genuke ziurren adostasunez eta desadostasunez berrikeria batean...

Beno, eta zergatik ez momentuz aprobetxatu daukagun lokal hori besterik gabe herrian guraso eta haurren arteko elkarleku bezala? Abiapuntu polita izan daiteke.

Badugu orain aukera bat umeak eta gurasoak lasai egoteko, euritik babesteko... Baita, adibidez, herriko eskolan matrikulatuta ez dauden baina hemen bizi diren ume eta gurasoei elkartzeko. Goazen hastera poliki-poliki, erabiltzen dugun heinean beharrak detektatuz.

Hala ere, apirilaren 10ean hasita, asteazkenetan ekintza bideratuak egongo dira 6-10 urteko haurrentzat, 16:30etik 18:30era. Zerbitzu honen arduraduna Udaleko suspertzaile eta hezitzaile Ainara Urteaga izango da.

Bestalde, arau sinple baina ezinbestekoak zehaztu dira:

- Barruan ezin da jan.
- Haurrak beti arduradunarekin egongo dira.
- Gela txukun utziko dugu.
- Dagoen materiala zainduko dugu. ■

Erabil dezagun zentzuz!
Besterik gabe,

Iturri Txiki Guraso Elkarte



Martxoak 8

Pasa den martxoaren 8an emakumeen nazioarteko eguna ospatu zen, eta nola ez, Itsasondoren ere izan zen festa giroa. Afaria izan zen Arbelaiz elkartearen, eta 40 bat emakume elkartuta, giro polita sortu zen.

Urtero bezala, emakume bat domina bat emanda omendu zuten. Aurten, Julita izan zen omendua. Bestalde, sukaldariei eta Arbelaiz elkartearen kideei eskerrak eman zitzaizkien urtero hor egoteagatik laguntzeko prest. Mila esker!

Gora emakumeen borroka!



Ijitu Eguna

Joan den otsailaren 2an, herriko haur eta guraso batzuk elkartu ginen, azken urteotan tradizioa izan den bezala "Ijitu Eguna" ospatzeko.

Eguraldiak ez zuen askorik lagundu, egia esan, eta eman nahi genuen herritik zeharreko buelta azkenean aterpea dagoen plaza inguruko etxetako "buelatxoa" izan zen.

Hala ere, giro onean ibili ginen 40 bat lagun zartagiak astinduz. Zerbaitetarako ibili ziren bada haurrak eskolan nola jo entsaia-tzen!

Gero, jubilatuen elkartearen elkartu ginen afari-merienda egiteko. Ez zen falta izan zer janik! Batzuk eramandako tortillak, beste batzuk eramandako txorizoak (dena arinarina); tripa bete-beterik lo egin genuen.

Aupa Itsasondoko ijittuak!



Euskal Herriko Mus Txapelketa

Pasa den urtarrilaren 25ean mus txapelketa jokatu zuten Kaxintane tabernan.

Zortzi bikotek hartu zuten parte txapelketan eta Xabi eta Aitor izan ziren garaile. Ondorioz, mus txapelketan jarraitu zuten, eta hurrengo fasera igaro ziren. Zorionak, bikote!



(lorezaintza gomendioak)

Nekazaritza ekologikoa (I)

Nekazaritza ekologikoari biodinamikoa edo biologikoa ere deitzen zaio.

Nekazaritza mota hau kontsumitzaileen eskaera baten erantzuna da: ingurumenaren zainketaekin sintonian, kalitatekin oneko elikaduraren beharra.

Nekazaritza ekologikoa batez ere oinarritzen da baliabideen erabilera arrazionalan eta landatzerakoan produktu kimikorik ez erabiltzean, zorua sistema bizi eta dinamikotzat hartuz, ez baitago hor esplotatua izateko, baizik eta hurrengo belaunaldientzat zaindua eta hobetua izateko.

Printzipio horiek betetzeko, zenbait teknika erabiltzen dira: ongarritzea, laboreak txandatzeta, laboreak elkartzea eta izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzea.

Ongarritzea

Zorua ongarritzeko materia organikoa aplikatzen da, eta erabili-lia konposta da. Konposta ongari naturala da, materia organiko hondakinetatik sortua -simaurrea, uza hondakinak, belar txarrak, (haziak ekidin), zaborren hondakin organikak, konposta zaharren hondakinak, asuna (burdina asimilatzen laguntzen du)-.

Simaurreak

Simaurreak izaten dira sarritan konpostaren materialik ugariena. Simaur bakoitzak propietate desberdinak ditu:

- Txerriak. Potasioan aberatsa. Gomendagarria sustraia hazteko.
- Zaldia. Aparta da lur astun eta buztintsuentzat. Gomendagarria hostoak hazteko.
- Untxia. Nitrogenoan aberatsa. Gomendagarria hosto eta zuhaixkak hazteko.
- Oiloa eta usoa. Zaila da konpostatzeko, eta purin bezala erabiltzen da gehiago. Potasio asko dauka. Ezin hobea lore landareentzat, frutentzat eta hazientzat.
- Ardia eta ahuntza. Oso ona landare usaintsuentzat eta sendagarrientzat.
- Behia. Simaurrik orekatuena da. Zoruari emankortasun iraunkorra berreskuratzen laguntzen dio. Era guztietako landareentzat egokia.

Ongari mineralak

Propietateen arabera, honela banatu daitezke:

- Nitrogenoan aberatsak.- txile nitratoa
- Silizean aberatsa. -silize haitz birrinduak.
- Fosforoan aberatsak- fosfato naturalak, deforestazio hondakinak.
- Potasioan aberatsak.patenkalia. egur-errautsak
- Karean aberatsak. Kare-mineralak (kareharria, kreta) eta likothane (alga kiskaliak)
- Magnesioan aberatsak. magnesita, dolomitak.

Gehigarri bereziak

Mikroorganismoetan aberatsak diren konposatuak dira; fermentazioa estimulatzeko eta konpostaren azeleratzaile bezala saltzen dira.

Maixabel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(enhezeta)

Bakailao krepa

Kreparen osagaiak:

2 arrautza
50 g. irin
Gurina (koilarakada bat)
Esnea
Gatza

Barrengoa:

200 g bakailao gezatu
2 koilarakada irin
Esnea
Tipula
Azenarioa
Piper berdea
Olio

Prestakuntza:

Barrengoa prestatzen hasiko gara. Tipula, azenarioa eta piper berdea txikitu eta zartagin batean egiten jarriko ditugu olio apur batekin. Ongi eginda daudenean, gehitu bakailao txikituta eta 2 irin koilarakada eta ongi nahastu ondoren esnea gehituko diogu loditzen doan bitartean, eta hozten jarriko dugu.

Krepak egiteko gurina urtu, eta ondoren arrautzak, irina eta gatzak ongi nahastu batidora baten bidez eta esne zorrotada bat gehitu. Zartagin batean gurin pixka bat jarri erantsi ez daitezen eta krepak egiten hasiko gara; ahal ditugun meheenak egingo ditugu.

Behin barrengoa hotza dugunean, krepak beteko ditugu, nahi dugun forma emanez.

Bakailaoaren azala erabili dezakezue pil-pil bat prestatzeko saltsa moduan erabiltzeko. Gustukoa duzuen beste edozein saltsa erabili dezakezue.



Jose Ignacia Duhau
Rubiorena jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

Liburutegia berriro martxan

Otsailaren 22an inauguratu genuen liburutegi berria. Bertan, haurrentzako txokoa, irakurtzeko mahaia, KZgunea, ikasgela, wifia eta hainbat eta hainbat liburu topatuko dituzue. Liburutegirako sarbidea eskuratzeko, udaletxera gerturatu behar duzue eta bertan, eskuorria bete ostean, txartel berri bat emango zaizue. Txartel horrekin, eguneko edozein ordutan sartu ahal izango duzue; hiru hilabeteko eguneratu behar da. Horretarako, udaletxera jotzea besterik ez duzue.



Liburutegiko zerbitzuak

- MAILEGUAK: liburuak hartzeko garaian, irakurleak bere datuak eta liburuaren datuak bete beharko ditu horretarako jarriko diren orrietan. Liburuak itzultzen denean ere, apuntatu egin behar da itzuli egin dela.
- EPEA: liburuak itzultzeko epea 20 egunekoa izango da (gehienez).
- Liburuak itzultzean, horretarako jarriko den saskitxoan utzi. Arduradunak jarriko du berriro bere lekuan.
- Proposamenak: liburu berriak erosteko zuen iritzia jakin nahi dugu. Jakinarazi horretarako jarriko diren orritxoetan. Gustura hartuko ditugu!
- LIBURUTEGI ARTEKO MAILEGU ZERBITZUA: beste liburutegietan dauden liburuak ekartzerik nahi izanez gero, liburutegiko arduradunari eskatu beharko zaio, zuzenean edota e-mail bidez: itsasondokoliburutegia@gmail.com. Eskaera egiteko garaian, irakurlearen izen-abizenak eta liburutegiko txartelaren zenbakia eman beharko dira. Itzultze data epean bete beharko da.
- LIBURU ZAHARRAK: liburutegi berria antolatzeke orduan, liburuak aukeratu egin behar izan dira, liburu asko zeudelako. Liburu horiek kaxetan gelditu dira, eta asmoa da azoka txiki bat egitea, nahiz izanez gero herritarrek liburuak eskuratzeko. ■




Oharra



Liburutegiko txartelak eskura

Jakinarazten zaizue liburutegi-ludotekako txartel eskaera egin duzuenok Udaletxetik pasa zaitezketela hauek jasotzera. Gogorazten dizuegu 2 euroko kostua duela.



Errenta aitorpena euskeraz

Euskeraren normalizazio bidean urratsak eman nahian herritarrok errenta aitorpena euskeraz egitera gonbidatu eta animatu nahi zaituztegu. Informazio gehiago aldizkari honen 9. orrialdean.

Kultur Agenda

- **Apirilak 3:** Odol emaileak.
- **Apirilak 12:** Itsasondo 2.0 aldizkariaren 20. aleko festa
- **Apirilak 19:** txikiaren heriotzaren 40. urtemuga.
- **Maiatzak 1:** Ausa-gaztelura irteera itsasondotik.
- **Maiatzak 3, 4 eta 5.** Urkiko jaiak
- **Maiatzak 5:** Itsasondotik Urkiara ibilaldia
- **Oriara ibilaldia** eta **Herri Eguna** ekainean zehar, data zehazteko.
- **Ekainak 23:** San Juan bezpera.

Telefono interesgarriak



Udaletxea 943 881170
 • Gizarte Langilea
 • Udal Arkitektoa
 • Epaitegia

Haurreskola 943 164831
Herri Eskola 943 887704
Arbel-Aitz Elkartea 943 881339
Lurdes Janari Denda 943 885236
Arrastoa Botika 943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 805800
Kaxintane Taberna 606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela 943 880012
Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555
Traste Zaharrak 943 161590
Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((20. zk))) Martxo-Ekaina 2013

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
 Aranzadi Elkartea
 Axier Bazaga
 Belen Mendizabal
 Beñi Agirre
 Danel Etxeberria
 Ekaitz Arruti
 Enma Arrondo
 Eskolako haurrak
 Erkuden Mendizabal
 Haizea Arruti
 Haurreskolako Hezitzaileak
 Iker Mendizabal
 Iker Uson
 Iratxe Ibarra
 Itsasondoko Gazte Taldea
 Iturritxiki Guraso Elkartea
 Jose Ignacio Duhau
 Maite Lasa
 Maixabel Garmendia
 Mikel Mendizabal
 Nagore Etxeberria
 Rosi Noguera
 Unai Agirre

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriko kanpo bizi baldin bazara, eta, ko-
 rreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean
 jaso nahi baduzu, jarri gurekin harrema-
 netan:

943 88 11 70
 itsasondo2.0@itsasondo.net
 Lege gordailua: 55-297-2010 ISSN: 2171-5572



**GOGORARAZTEN DIZUEGU
 HURRENGO ALEA
 EKAINEAN IZANGO
 DUZUTELA ETXEAN**

Paper birziklatuan egina



truke estudio grafika